

dominar análisis, comentararios e información de un sector sobre los otros en uno o varios números.

Todo depende de ellos, no de vosotros que sé recibíais a todos con los brazos abiertos en fraternal abrazo.

Habéis pedido colaboración y habéis recibido desaires. Habéis visto colaboraciones vascas en revistas foráneas. Quizá os ha sorprendido. Es problema de conciencia individual, puede ser estrategia de grupo. Os ruego sigáis por el mismo camino recto, equidistante, humanamente objetivos y si recibís un golpe en una mejilla, poner la otra. Pero seguir insistiendo tras vuestros objetivos.

En toda lucha se reciben golpes. Hay que saber encajarlos y no desanimarse.

Euskadi está en plena lucha por sus reivindicaciones, tras la búsqueda de su personalidad, por la integración de su pueblo.

Seguid luchando como jóvenes que sois aunque os pongan moradas *las dos mejillas*.

*Otxoa de Barandika*

## J. M. ANASAGASTIRI ERANTZUNEZ

Agur aberkide:

7. GARAIA-n argitara duzun artikuluak ("Un Organismo Unitario") mamia du ugari; eta erantzun zehatza merezi luke. Ez enea, ordea, ez abertzale honen edo harena; abertzale talde eta alderdiana baizik. Egon egin behar!

Azkeneko urteotan Caracas-tik ere egin duzun abertzale-lana ezagutzen dugunok, ongi dakigu zure helburua zein den. Helburu horri buruz, hortaz, zalantzarik ez dago; eta

jakizu aburukide gaituzula.

Zure artikuluan, halaz ere, puntu ilun batzuk aurkitu uste ditugu. Halako batez, esate baterako, hau diozu: "organismo que comprenda todas aquellas organizaciones políticas democráticas, que reconozcan la personalidad política de Euzkadi, y su derecho a la autodeterminación" (hau, noski, ez hitzez soilki; bestela jai dugu: denek aipatzen baitute gaur, Suárez-en gobernuaren barne, euskal arazoa); eta geroxeago beste hau: "máximo de agrupaciones vascas en torno a este organismo" (eta hau zer den ongi dakigu).

Gauza bera ahal dira biak?

Beren barne-antolakera (eta jaun-eta-jabe diren baranoan, beraz) sukurtsalismo betean bizi diren alderdiak (MCE, PCE, PSOE, Falange, eta abar) bapatean anti-sukurtsalismoan barrena abiatuko direla pentsatzeko arrazoinik ez dago. Alderantziz pentsatzeko bai, eta sendorik. Hain zuzen ere beren buruz, eta inork horretara behartu gabe, sukurtsalismoan bizi diren alderdiek, ez dute anti-sukurtsalismo egiteko asmorik. Eta hauxe da frogarik nabarmenena: beren barruan, loturarik gabe mogitzen diren munduan, sukurtsalismoan bizi direla lasai.

Erabiltzen eta maite ere ez duten autodeterminazio hori onar erazteko sua nondik etorriko ote zaien, beraz, ez dugu ulertzen. Ba dirudi ideia hori kanporatzen hasi baino lehenago, sinetsiko baditugu, barneratu egin behar luketela aurrenik; autodeterminazio hori beren militanteen artean erabiliz. Bestela ba dirudi beren militanteentzako ez dagoen eskubidea, besteentzako bakarrik izango dela. Eta hau sinesten zaila da. Nola "esportatuko" dute ezagutzen ez erabiltzen duen delibero-rik? "Inportazio" mailan daudenek, nekez "esporta" dezakete hori bera.

"Autodeterminazio" bila joatean, hortaz, Anasagastik nahi duen bezala, sukurtsalismo betean bizi diren alderdietara jo; eta anti-

sukurtsalismo betean bizi GAREN alderdiotara ez jotzea, erokeria da. Abertzale indarrak baztertu, eta PSOE eta PCE-ra jotzea (anti-sukurtsalismo bila!), ez du bururik ez hankarik.

Halaz ere, horixe da, *aspaldi danik*, PNV-aren jokabidea: abertzale indarrak zapuztu ondoren, behin eta berriz bere burua sukurtsalistarrik amorratuenean eskuetan jartzea. Azkeneko sei urte hauetan, BI aldiz ebaki eta hondatu du PNV-ak Abertzale Elkarteak: aurtun eta 1971-an. Eta bietan egin du PSOE hasarretzeko beldurrez.

"Gazteak" omen garelata (nik 47 urte ditut gaur, Agirre Lehendakari hautatu zuten haren baino 15 gehiago) Alderdiak ez du gugan, abertzale berriengan alegia, sineste; eta Felipe González-ekin eta Carrillo-rekin tratatu du nahiago du. Euskal Herriko etorkizuna hauen eskuetan omen dago, eta ez abertzale ezkerrean. Abertzale izateko eskuindarra izatea beharrezko bailitzan.

Anasagasti-ren galdera, horrela, neure egi-ten dut: "el problema está en saber... quién la quiere sinceramente, y con quién se hace esa unión".

Ene ustez, behin eta berriz, sukurtsalismoaren kontra burrukatzerakoan, sukurtsalismo betean bizi direnak oinarritzat hartzeak funtsik ez du.

Elkarrizketa honi segida emango diogun esperantzaz

*Txillardegí, Urriaren 15*

## OBISPO URIARTE

En la emisión del programa informativo de Radio Popular de Bilbao, del día 11 de octu-

D. ....

Profesión ..... Teléf. ....

Calle .....

Población ..... Provincia .....

Deseo una **suscripción anual** (1.950 ptas.) que pagaré en:

- |  |  |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> Una anualidad   | <input type="checkbox"/> En dos semestres  |
| <input type="checkbox"/> Domiciliación pago en Banco (completar boletín anexo) | <input type="checkbox"/> Les envío importe (giro, cheque...)                                 |
|  | <input type="checkbox"/> Ingreso en nuestra C/c. Banco de Vizcaya, San Sebastián, n.º 743635 |

Banco o Caja de Ahorros .....

N.º de cuenta .....

Sucursal .....

Domicilio de la sucursal .....

Población .....

Titular de la cuenta .....

Ruego a Uds. adeuden en mi cuenta los recibos que a mi nombre les sean presentados por PROMOTORA DE PUBLICACIONES GARAIA, S. A.

Atentamente,

Firmado D. ....

Domicilio .....